# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 17. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 17

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2021ko martxoaren 23a**<br>Udalbatza<br>**18:00etan** |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:36ean** |

**GAI ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1. Aurreko akta onartzea (10 minutu) | 1. Aprobación de acta anterior (10 minutos) |
| 2. Aurrekontuak (20 minutu) | 2. Presupuestos Medio Ambiente (20 minutos) |
| 3. Klima aldaketa plangintzaren ibilbide orria (20 mintu) | 3. Hoja de ruta del cambio climático. (20 minutos) |
| 4. Aurrekontu parte-hartzaileak (15 minutu) | 4. Presupuestos participativos (15 minutos) |
| 5. Galderak eta eskaerak (10 minutu) | 5. Ruegos y preguntas (10 minutos) |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Ekologiako, Osasun Publikoko, Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | EAJ/PNV m<br>PSE-EE<br>EH BILDU<br>Elkarrekin Donostia<br>PP |
| KONTSEILUKO KIDEAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. HARITZALDE<br>2. EGUZKI<br>3. EMAUS FUNDAZIOA<br>4. ARANZADI<br>5. AZTI<br>6. COAVN<br>7. SEO DONOSTIA<br>8. CRISTINA ENEA FUNDAZIOA<br>9. HERRITARRA 1<br>10. DONOSTIA BIZIRIK |

| | |
|---|---|
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | ITSAS ENARA<br>INGEBA<br>INGURUGELA<br>KALAPIE<br>HERRITARRA 3 |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | A<br>Ingurumen eta Osasun publikoko zuzendaria<br><br>Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua<br><br>Herri Partaidetza Zerbitzuaren burua |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres = **9**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **9** |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | Osasun eta Ingurumeneko lege teknikaria / Técnico Jurídico de Salud y Medio Ambiente<br>ingurumena@donostia.eus |

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

Herri Partaidetza Zerbitzuaren buruak Marisol Garmendia aurkeztu du, Kontseiluko lehendakaria izango dena hemendik aurrera. Hark, hitza hartu eta iragarri du klima aldaketaren aurkako borroka ez dela Ingurumen Sailaren apustu estrategikoa bakarrik izango, baizik eta Udal guztiaren apustu estrategikoa izango dela.

La Jefa del Servicio de Participación ciudadana presenta a Marisol Garmendia como nueva presidenta del Consejo, toma la palabra y anuncia que la lucha contra el cambio climático va a ser la apuesta estratégica no solo del Departamento de Medio Ambiente sino del Ayuntamiento.

### 1. Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko aktari Elkarrekin Donostiaren ordezkariak 2020ko martxoaren 11n postaz egindako ekarpen guztiak jaso eta gero onartu da akta.

### 1. Aprobación del acta anterior

Se añaden al acta anterior todas las aportaciones que el representante de Elkarrekin Donostia realizó por correo el 11 de marzo de 2020 y se aprueba el acta.

## 2. Ingurumeneko aurrekontuak

Osasun eta Ingurumen zuzendariak aurrekontuak aurkeztu ditu. Inbertsioen kapitulua 490.000 eurotik 1.657.000 eurora igo da. Halaber, esan du aztertzen ari direla aurrekontuaren ehuneko zenbat jartzen duen Udalak klima aldaketaren aurkako borrokarako, Europar Batasunak adierazitakoa bete ahal izateko hartara.

HARITZALDEren ordezkariari gutxi iruditzen zaio Ingurumenean gastatzen dena. Era berean, esan du Artikutzako presan konektagarritasun hidrikoa lehen bezala jartzeak ingurumen-eragin handia izan dezakeela.

EGUZKIren ordezkariak berriz ere esan du ez dagoela borondate politikorik hondakinen gaikako bilketaren arazoa konpontzeko. “Donostiarren % 16k bakarrik erabiltzen du edukiontzi marroia”. Probintziako beste udalerri batzuetako biztanleei kopiatzea gomendatu du, Donostia denen atzean dagoela eta.

Kontseiluko lehendakariak, berriz, adierazi du: “ez gaude esaten den bezain gaizki, organikoan ez bestean”, eta “hobetuko ditugu dauzkagun bilketa ehunekoak”. Artikutzaz, adierazi du oso esku-hartze txikia izango dela, 6 metro zabaleko urradura, eta, ahal bezain pronto, Kontseiluko kideak finka ikustera gonbidatu nahi dituela.

SEO BIRDLIFEren ordezkariak adierazi du sorbeltza dela aurtengo hegaztia, eta kezka adierazi du ez ote den erabat galduko. Eraikinen zulo txikietan egiten dute habia, eta eraikinak birgaitzekoan ez da hori kontuan izaten. Ikerketa bat egiteko eskatu du enara azpizuriaren eta sorbeltzaren gainean, eta espezie horiek habia egiten duten eraikinen erregistroa sortzeko, hegaztiak babestu ahal izateko.

Berriro eskatu du hegaztien silueta edo itsasgarriren bat jartzeko Agirre Lehendakariaren zubian, hegaztiek baranda gardenaren kontra ez jotzeko.

Herritarra 1 oihalak biltzeko ontziak jartzearen alde agertu da.

## 2. Presupuestos Medio Ambiente

El Director de Salud y Medio presenta los presupuestos. El capítulo de inversiones pasa de 490.000 euros a 1.657.000 euros. Asimismo dice que se está estudiando que tanto por ciento del presupuesto dedica el Ayuntamiento a la lucha contra el cambio climático con vistas a cumplir lo indicado por la Unión Europea.

Al representante de HARITZALDE le parece poco lo que se gasta en Medio Ambiente. Añade que la obra de restauración de conectividad hídrica en la presa de Artikutza puede provocar un fuerte impacto medioambiental.

El representante de EGUZKI insiste en la falta de voluntad política para atajar el problema de la recogida selectiva de residuos. “Solo el 16% de la población donostiarra utiliza el contenedor marrón”. Recomienda copiar a nuestros vecinos de la provincia ya que Donostia está en la cola.

La presidenta del Consejo indica que “no estamos tan mal como se dice, sí, en cuanto al orgánico “ y concluye que “vamos a mejorar los índices de recogida”. En cuanto a Artikutza, defiende que la intervención será mínima, una rasgadura de 6 metros de ancho y que en cuanto se pueda le gustaría invitar a los/las miembros del Consejo a visitar la finca.

El representante de SEO BIRDLIFE indica que el vencejo es el ave del año y muestra su preocupación por su supervivencia. Anidan en las oquedades de los edificios y al rehabilitarlos no se tienen en cuenta. Solicita un estudio en relación al avión común y al vencejo, y que se cree un registro de edificios en los que anidan estas especies con el fin de poder protegerlas.

Vuelve a solicitar que se pongan siluetas de aves o algún adhesivo en el puente Lehendakari Agirre para que las aves no se choquen contra el barandilla transparente.

Ciudadano/a 1 aboga por la implantación del contenedor textil.

## 3. Klima aldaketaren ibilbide orria.

Ingurumen Osasun eta Iraunkortasun

## 3. Hoja de ruta del cambio climático.

La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y

Zerbitzuaren buruak puntu hau aurkeztu du eta aurkezpena Kontseiluko kide guztiei bidaliko diela esan du.

Sostenibilidad presenta este punto y dice que mandará la presentación a todos los/las miembros del Consejo.

EGUZKI, HARITZALDE eta DONOSTIA BIZIRIK elkarteen ordezkariek neurri sendoagoak eskatu dituzte. Lehenengoak dio airea kutsatzen denean alarma jotzeko sistema hobetu egin behar dela. DONOSTIA BIZIRIK elkarteak Emisio Gutxiko Eremuak sortu behar direla esan du, eta Haritzaldek adierazi du Udalaren plan batzuk klima aldaketaren ibilbide orrian jasotako ekintzen aurka daudela.

Los representantes de EGUZKI, HARITZALDE y DONOSTIA BIZIRIK solicitan medidas más contundentes, el primero de ellos dice que se debe mejorar el sistema de alarmas por episodios de contaminación del aire. DONOSTIA BIZIRIK indica la necesidad de crear Zonas de Bajas Emisiones y Haritzalde indica que hay Planes municipales que van en contra de las acciones recogidas en la hoja de ruta de cambio climático.

## 4. Partaidetzazko aurrekontuak

## 4. Presupuestos participativos

Herri Partaidetza Zerbitzuaren buruak puntua aurkeztu eta, informazio gehiago nahi izanez gero, harekin egoteko esan du.

La Jefa del Servicio de Participación Ciudadana presenta este punto y explica que pueden contactar con ella para recibir más información.

## 5. Galderak eta eskaerak

## 5. Ruegos y preguntas

DONOSTIA BIZIRIKen ordezkariak Hondakinen Gida-agirian jasotakoaren garapenaz galdetu du, eta gaikako bilketan ez duela aurrerapenik ikusten esan du.

HARITZALDEren ordezkariari akatsa iruditzen zaio Antondegiko olatu artifizialen parke proiektua, klimaren aurkako estrategiaren aurka doalako eta baita Urumearen eta Lau Haizetako parkearen arteko konektagarritasun ekologikoaren kontra ere. Gainera, eragin oso negatiboa egin diezaieke inguru hartako hegazti espezieei. Halaber, 27. poligonotik Astigarragara bitarteko errepidean ere konektagarritasun ekologikoa kontuan hartzeko eskatu du.

BILDUren ordezkariak errefusaren edukiontzia erabiltzeko txartelaz galdetu du, aurrekontu proiektuan ez duela proiektu hori ikusi eta.

SEOren ordezkariak “olatuen” proiektua bertan behera uztea espero du; izan ere, Antondegi balio natural handiko korridore ekologikoa da, hegaztien migrazio gunea, 117 espezie jasota dituena: babes bereziko 84 eta Mehatxupean diren Espezieen Euskal Katalogoan jasotako 29.

Kontseiluko lehendakariak eskertu egin du batzordekideek erabilitako tonua, eta esan du hemendik aurrera Udalak ingurumenaz dituen berri eta prentsa-ohar guztiak bidaliko dizkietela haiei ere, posta elektronikoz.

El representante de DONOSTIA BIZIRIK pregunta por el desarrollo de lo recogido en el Documento Director de Residuos y dice que no ve avances en la recogida selectiva.

Al representante de HARITZALDE le parece un error el proyecto de parque de olas artificiales de Antondegi ya que va en contra de la estrategia contra el clima y en contra de la conectividad ecológica en el municipio entre el Urumea y el parque de Lau Haizeta. Además puede tener un impacto muy negativo en especies de aves de la zona. Asimismo reclama que en la carretera que va del polígono 27 a Astigarraga se tenga en cuenta la conectividad ecológica.

La representante de BILDU pregunta por la tarjeta para el contenedor del Resto ya que no ve dicho proyecto reflejado en los presupuestos.

El representante de SEO espera que se revoque el mencionado proyecto de “olas”, ya que Antondegi es un corredor ecológico de alto valor natural, una zona de paso migratorio de aves, con 117 especies contempladas, 84 de ellas en protección especial y 29 especies recogidas en el Catálogo Vasco de especies Amenazadas.

La presidenta del Consejo agradece el tono empleado por los/las vocales e indica que a partir de ahora se les pasaran por mail todas las noticias y notas de prensa del Ayuntamiento referentes al Medio Ambiente.

**19:36an bukatu da bilera.**

**Finaliza la sesión a las 19:36 horas**.